

*Tximeleta mendian  
Lore baten gainean*

*Udaberria! Erantzi, erantzi berokiak! Erantzi, erantzi  
bufanda eta eskularruak! Gorde neguko arropa, baina  
badaezpada ez gorde aterkia, aterkia ondoan eduki, hemen  
askotan behar izaten da-eta.*


*Jantzi praka motzak, jantzi gona! Heldu da, heldu da  
udaberria! Orain zuzenean etxera joan beharrean, jolasean  
kalean ibiliko zarete. Egunak argiagoak dira eta luzeagoak,  
iufi!!!*




*Eta ikusi dituzue zelaiak? Lorez bete dira. Txoriak ere hasi  
dira txio-txioka. Jendea hasi da animatzen eta planak  
egiten, ederto!*




*Musutxuek*


Lorentxo












# **UDABERRIA**

**ZUHAITZAK LOREZ BETETZEN DIRENEAN,  
TXORIAK KANTUAN HASTEN DIRENEAN,  
BEROKI LODIA ARMAIRUAN GORDETZEN DUZUNEAN,  
ELURRA URTZEN HASTEN DENEAN,  
ETXEAN HORRENBESTE EGOTEARI UZTEN DIOZUNEAN,  
BEROGAILUA PIZTEN EZ DUGUNEAN,  
ESKULARRUAK ERABILI BEHARRIK EZ DAGOENEAN,  
BIZIKLETA GANBARATIK ATERATZEN DUGUNEAN,**

## **UDABERRIA DA...**

**... KALERA IRTETEKO GARAIA...  
HOTZA ETA BEROA ELKARTZEN DITUEN URTAROA.**













# ARBOLA



# HOSTOAK



# ESKUAK

